

Nazioarteko Online Ikastaroa


**“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK.
Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta
prozesu kolektiboak eraikitzen”**

2. edizioa

(2020-2021 Ikasturte akademikoa)

2021

Gida Didaktikoa – 5. Modulua



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Finantziatzaioa:



Jokin Alberdi

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

08-03-2021



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

5. MUDULUA: Botere politikoa eraikiz. Gatazkan dauden herrialdeen ikaskuntzak

Moduluaren helburuak

- 1.- Maila lokalean garatzen diren erabaki-prozesuei eta parte-hartze demokratikoari buruzko hausnarketa kritikoa egitea.
- 2.- Parte-hartzea, demokrazia eta gobernantzaren definizio eta kategoria berri eta zabalagoak ematea, lurraldeetako prozesu eraldatzaileetan erabilgarri izateko.
- 3.- Lurraldeetako botere-harremanak aztertzekeo tresnak eskuratzea.

Moduluaren sintesia

Lurraldeetan botere politikoa eraikitzeari buruzko modulu hau hainbat zatitan dago banatuta: lehena, makro eta mikro mailako demokrazia eta gobernantzaren egungo egoera jasotzen duena; bigarrena, kontzeptu eta prozesuei buruzko hausnarketa eta ekarpen kritikoak jasotzen dituena; hirugarrena: gure lurraldeetan ekiteko ikaskuntza-esparruak eraikitzekeo erabilgarriak izan daitezkeen ekonomia politikoko azterketarako lurralde esparruen ideiak jasotzen dituena. Eta, azkenik, web baliabide batzuen erreferentziak, lezio/modulu honen edukiak osatzeko egokiak izan daitezkeelakoan.

Kapitalismo globalak, botere korporatiboak eta plan desarrollista eta estraktibistek planteatzen dituzten arazo eta erronkei dagokienez, funtsezkoa da lurralde zehatzen aldaketarako gaitasun politikoak eta ekintzak aktibatzea. Indar hegemonikoen ordezkotako aukerak eraikitzekeo subjektu politikoak indartzen dituzten praktika demokratikoak proposamenen eta azterketen erdigunean egon behar dira. Eta, horretarako, funtsezkoa da gainerako eskaletan sortzen diren botere-harremanak eta erabakiak kontuan hartzea (estatu mailan, nazioartean, mundu mailan, maila korporatiboan, familia barruan, eguneroko bizimoduan, gizon eta emakumeen artean...).

Deliberaziorako espazioak, lurraldeari buruzko informazioa eta ezagutzak partekatzea, parte-hartzea, gaitasun kolektiboak eta ahalduntzea, batez ere tradizionalki baztertuta egon diren sektoreen kasuan, eta lurraldeko eragileen artean harremanak lantzeko modu berriak



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

5. MUDULUA: Botere politikoa eraikiz. Gatazkan dauden herrialdeen ikaskuntzak

ezinbestekoak dira komunitate eta sozietate demokratikoagoak eraikitzeko.

Era berean, herritarren ezjakintasunean, apatia politikoan eta arazoen konplexutasun teknikoan babestuz, elite ekonomikoak, gobernuak eta kudeatzaile publikoak eroso daude gizartearen ezagutza eta eskaerei entzungor eginez, eta beren zerbitzura dauden adituen iritzietan oinarritzen dira.

Ez dago erabakiak hartzeko modu demokratikoetan sakontzeko borondate handirik. Ondorioz, narratiba dominatzaile horiei aurre egiteko eta justizian, elkarbizitzan eta ongizate kolektiboan oinarritutako beste batzuk eraikitzeko, sistemaren eta lurraldearen berdintasun ezak zalantzan jarriko dituzten subjektu politikoaren ikaskuntzak oinarri hartzea proposatzen da. Ekonomia politikoaren eta bakearen eraikuntzaren analisi-esparruek ezin dute lurralde mailako errealitateen konplexutasuna jaso.

Lurraldeetako subjektu protagonistek eskatzen dituzten aldaketa eraldatzaileak bigarren plano batera pasatzen dira, kanpo eragileen interes eta begiradek alboratu egiten dituztelako, eta azken horiek ez dituzte oinarri moduan hartzen diskriminatutako kolektiboen esperientzia propioak edo logika kapitalista, arrazista eta heteropatriarkalen inguruan egindako hausnarketak.

Modulu honen asmoa ez da errealitate konplexuak aztertzeko behin betiko formulak eskaintzea ere, izan ere, ez dago hobeto bizi ahal izateko errealitatea eraldatu nahi duten tokiko prozesu kolektiboetarako azterketa-esparru itxirik. “Gatazkan dauden herrialdeen” proiektuko subjektu politikoaren ikaskuntzez gain, proposatzen dena da beste analisi-esparru kritiko batzuetako elementu interesgarrietako batzuk berreskuratzea.

Lurraldea bera, gaitasun kolektiboak, kezka partekatuak, eragileen arteko elkarreraginak, isilarazitako jakintza eta ezagutzak, ikaskuntza feministak eta eragile horiek egiten dituzten proposamen alternatiboak... horiek dira kontuan hartu beharreko aspektu batzuk, lurraldeetatik ikasi nahi badugu.



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

5. MUDULUA: Botere politikoa eraikiz. Gatazkan dauden herrialdeen ikaskuntzak

Ikasleen egitekoak

- i) Testua arretaz irakurtzea. Interesgarrien ikusten diren aspektuei buruzko laburpen edo iruzkin bat egitea.
- ii) Egiten diren galderei erantzutea.
- iii) Eztabaida-foroan parte hartzea.

4

Gutxi gorabeherako kronograma

Moduluak zazpi eguneko iraupena dauka, 2021eko **martxoaren 8tik 14ra**. Guztira, sei orduko lana da. Denboraren antolaketa desberdina izango da pertsonaren arabera, baina orientazio moduan honako banaketa proposatu da, eguneko ordubeteko lanarekin:

21/03/08 astelehena	21/03/09 asteartea	21/03/10 asteazkena	21/03/11 osteguna	21/03/12 ostirala	21/03/13 larunbata	21/03/14 igandea
-5. Gida didaktikoa irakurtzea -5. Moduluko bideoak ikustea. -Testuaren 1. Zatia irakurtzea (183-191 orrialdeak)	-Testuaren 2. Zatia irakurtzea (191-202 orrialdeak) -Foroaren 1. Galderaren hasiera: Parte-hartze demokratiko nahikoa dago ezagutzen dituzun prozesuetan?	- Irakaslearekin zalantzak argitzea (BBcollaborat e saioa) -Foroaren 1. Galderan parte hartzea.	-Foroaren 1. Galderan parte hartzea - Testuaren 3. Zatia irakurtzea (202 orrialdeetik aurrera)	-foroaren 2. galdera hasiera. Foroa: Parte-hartze prozesuen ikaskuntzak -Testari erantzutea	-Foroaren 2. Galderan parte hartzea. -Web baliabideak eta beste laguntza baliabide batzuk errebisatzea	-5. Modulua n amaitzea -Testa entregatzea



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

5. MUDULUA: Botere politikoa eraikiz, Gatazkan dauden herrialdeen ikaskuntzak

Oinarri-testua gaztelaniaz

<https://territoriolab.org/wp-content/uploads/2019/12/Mod-5-CAS.pdf>

5

WEB baliabideak

Ikastaroaren iraupena dela eta, ezin da testuaz gain beste dokumenturik landu, baina, kontsultak egiteko, modulu honekin erlazionatutako web baliabide batzuk proposatu nahi ditugu.

Ondoren adierazitako ingeleseko webguneetara jo dezakezue, alde biko garapen-agentzien tokiko eta komunitate mailako garapen esparru analitiko eta ikuspegi nagusietako batzuk jasotzen baitira horietan.

Nazioarteko Laguntzarako Australiako Agentzia: “Garapenerako Lidergo Programa” (DLP): <https://www.dlprog.org/publications/research-papers/inside-the-black-box-of-political-will-10-years-of-findings-from-the-developmental-leadership-program>

Garapena sustatu edo blokeatzen duten lidergo politikoko prozesuak eta boterea aztertzen duen nazioarteko ikerketa ekimena da. Hazkunde iraunkorra, egonkortasun politikoa eta garapen sozial inklusiboa sustatzeko tokiko erakundeek sorkuntzarako lidergo kolektiboan zentratzen da. Ondorengo dokumentua errebisatzea gomendatzen da.

DLP (2018): *Inside the black box of political will: 10 years of findings from Developmental Leadership Program*. Australian Aid. February, 2018

Britaniar Gobernurako Garapenerako Saila (DFID) “Aldaketaren sustatzaileak” “Impulsores del cambio” <https://www.odi.org/publications/5399-mapping-political-context-drivers-change> **Drivers of change**. DFID erakundeak garatutako ikuspegia, herrialdeen esparru politikoen eta garapenerako



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatutako eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

5. MUDULUA: Botere politikoa eraikiz. Gatazkan dauden herrialdeen ikaskuntzak

organismoen operazioen arteko lotura faltaren arazoa konpontzeko. Pobreziaren murrizketa babestu edo eragozten duten faktore ekonomiko, sozial eta politikoen interakzioan zentratzen da, kasu bakoitzaren berezitasunetan, testuinguru historiko eta politikoa eta borondate politikoa zentratuz.

6

Nazioarteko Lankidetzarako Suediar Agentzia (SIDA) “Botere analisisa”

https://www.sida.se/contentassets/83f0232c5404440082c9762ba3107d55/power-analysis-a-practical-guide_3704.pdf

Gida honek boterearen inguruko ezagutza akademikoa eta suediar agentzia honen praktika egokiak uztartzen ditu. Agenda 2030ean jasotako pobrezia murrizteko helburuak lortzeko, ekonomia politikoaren azterketa eta boterearen asimetriak uztartzea proposatzen du. Botere informala, arauak eta egiturak ere mapatzen ditu, protagonista diren biztanlerien ongizatearen banaketa orekatu baten ikuspegitik.

Gehienak nahiko instituzionalak dira, baina moduluaren gaiekin erlazionatutako baliabideak dituzten webgune hauek ere interesgarriak izan daitezke:

Demokrazia Parte-hartzailearen Nazioarteko Behatokia

<https://oidp.net/es/>

Hirien gobernuaren demokrazian sakontzeko asmoz, tokiko mailan demokrazia parte-hartzailearen esperientziak ezagutu, partekatu eta aplikatu nahi dituzten lurraldeetako eragileentzako espazio irekia.

Rimisp-Landa Garapenerako Latinoamerikar Zentroa:

<https://webnueva.rimisp.org/>



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

5. MUDULUA: Botere politikoa eraikiz, Gatazkan dauden herrialdeen ikaskuntzak

Atari honek baliabideak ematen ditu landa-garapenaren inguruko ikaskuntza sozialerako, aldaketa instituzionalen prozesuak, berrikuntza eta eragile sozialen sustapena babesteko eraldaketa ekonomiko eta lurralde mailako dinamikak sendotzeko.

Vía Campesina: <https://viacampesina.org/es/>

Nekazaritza eta kontsumo eredua mundu mailan aldatzeko aldarrikapena egiten duten nekazari-sareen ekimen eta mobilizazioen zabalkunderako espazioak.

Lankidetza deszentralizatuaren Behatokia. Europa eta Latinoamerikaren arteko Elkartea <https://www.observ-ocd.org/>

Tokiko garapen eta EB-LA lankidetza deszentralizatuaren interesa duten eragile eta tokiko gobernuentzako Baliabide Zentroa.

ConectadDEL.

Latinoamerikan eta Kariben Gizarteratze-prozesu eta Garapen Ekonomikoa bultzatzeko Prestakuntza Programa

<http://www.conectadel.org/>

Latinoamerikan eta Kariben deszentralizazio prozesuak babesteko baliabideak eskaintzen dituen Nazioarteko Programa baten webgunea da. Helburua: tokiko garapen ekonomiko iraunkorrerako kudeaketa publiko eta pribatua burutzeko gaitasuna sendotzea.

Bibliografia osagarria

Lezio honekin erlazionatutako gai batzuetan sakontzeko:

ALBERDI, Jokin & DUBOIS, Alfonso (2015): “El proceso de definición colectiva del bienestar, como referencia clave de la dimensión política del desarrollo. Del desarrollismo al desarrollo humano”. *Contextos y perspectivas de la democracia: Ensayos en honor a Pedro Ibarra Güell*. Iruñea: Pamiela/Universitas, 62-85 orrialdeak.



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak
eraikitzen”
(2. edizioa)

5. MUDULUA: Botere politikoa eraikiz. Gatazkan dauden herrialdeen ikaskuntzak

ALBERDI, Jokin; OIANGUREN, María & ARESKURRINAGA, Efren (2020):
“Explorando visiones compartidas y procesos alternativos en la Reserva
de la Biosfera de Urdaibai (País Vasco). ECOSISTEMAS. Revista Científica
de Ecología y Medio Ambiente, 28. Bolumena, 1. Zk. 1-6 orrialdeak
<https://www.revistaecosistemas.net/index.php/ecosistemas/article/view/1940>